

BALIO PROPOSAMENA

Gu Sopomovil enpresa gara, mugikorrentzako euskarri unibertsal erabilgarri bat egiten dugu, edozein mugikorrentzako balio duena, baina hau gutxi izango balitz, beste gauza batzuk uzteko ere erabili dezakegu, tableta, Nintendo Switcha, argazki markoren bat... Merkatuan guk egingo dugun euskarriaren antzekoak badaude baina gure euskarria besteetatik desberdintzen duena, basean duen pegatina irristaezin bat jarriko da, euskarria ez mugitzeko. Gure euskarrian zulo bat egingo dugu, kablea pasatzen den tamainako zulo bat, horrela mugikorra euskarrian dagoen bitartean kargatzen eduki dezakegu. Kalitate handiko aluminiozkoak egingo ditugu pisu arin bat eduki dezaten eta ondoren kolore ezberdinez margotuak. Makina eta herramienta desberdinen bidez guk sortuko ditugu eta internetez, sare sozial edo promozioen bidez salduko ditugu. Gainera, produktu guztiak eskuz egindakoak dira.



Guri, guk sortutako euskarria oso erabilgarria delako erosiko digute, edozein momentuan mugikorra edo beste gauzaren bat euskarriaren gainean utzi dezakegu, euskarri hau ez da dimentsio handikoa beraz edozer tokitan uzteko eta eramateko erabilgarria da, mahai baten gainean, sukaldean... utzi daiteke.

Euskarri honi pare bat zulo egingo dizkiogu, mugikorra euskarrian erabiltzen ari garen bitartean kargatu ahal izateko. Euskarriaren beheko aldean pegatina ez labaingarri batzuk jarriko ditugu, euskarria erabiltzen ari garen bitartean ez mugitzeko eta etxeko mahaia markatuta ez uzteko. Gure euskarria unibertsala da, mugikor guztientzako baliogarria da eta mugikorrak ez diren gauzak ere erabili ditzakegu.

